

EC-AJRren abenturak

Ra, ta, ta, ta! Zer gertatzen da hor? Itzuli, itzuli! Egin atzera!
Etsaia bistan! Hondartzaren ekialdea hartu dute! EC-AJR Zer
ikusten da hortik? Ra, ta, ta, ta! Boum! Kea, kea! Kontuz,
hegala! Altuera galtzen ari gara! BOUM!!!!!!!

UOOOOO!!!! Zer da hau? Ametsetan ari nintzen! Eskerrak!
Baina... norbait nire atea zabaltzen saiatzen ari da. Nor dira
hauek? Zertan ari dira? Non nago? Ai! Hegoak falta zaizkit,
altimetroa eta iparorratza apurtuta dauzkat. Hegaldi paperak
berriz hor zehar botata. Motorra, ai nire bihotza! Bruumm
egiten zuena haizeak gogor jotzen zuenean.



Ezagutzen dut nik, atea zabaltzen ari den hori! Nola zen?...
Carlos Eugi, bai, nire nagusia, baina ze aldatuta dagoen, ilea
zurituta dauka, eta nor dira beraiekin daudenak? horrek jakan
daukan eskudo hori nik ezagutzen dut!.

- Sí, 20 años lleva aquí el pobre pero ...nino-nino.....ía
por ...nino-nino..... otro por ...nino-nino.....
arreglar.
- Bueno, tú tranquilo que nosotros nos encargamos de
...nino-nino..... en
- Ya me da pena deshacerme de él, son muchos años.

Niri buruz ari dira! Baina ez dakit zertaz ari diren
anbulantzia sirena horien zaratarekin! Oh my god! Hogei urte
pasa dira eta ni lotan.

Biltegi batean nago, kartoizko fardel batzuk dauzkat hemen ezkerrean, bat erdi zabalik dago, gomazko eskularru batzuk ageri dira, atzerago segurtasun kutxa metalikoak, kar-kar, zer ote dago barruan? Hau argitasuna itsutzen nau! Uste dut argi hori bi lehiotatik datorrela, uf! Lainotu da , hara! zerua, gustura egingo nuke hegalditxo bat, mendi horren gainetik !

- Trae el camión.
- Y acerca la grúa.

Ui! Hemen zerbait gertatzear dago. Agian etxera naramate.

Egia esan ez dut gogoratzen zergatik nagoen hemen.

Eskularru, kutxa gotor eta amaunaz gain, postontzi batzuk eta metal plantxa pare bat ez dago ezer gehiago, hau leku itsusia.

Nire jaiotzako lekua bai zen ederra, anaia piloa ginen,

Ai! Min eman didate, golpe bat. Hau oso ilun dago, laguntza mesedez! Mugitzen ari da! Lasai-lasai kamioi baten barruan nago. Nora eramango ote naute? Txatarrera? Ez, espero dut ezetz!

Bizi izan ditudan gauza txar guztien ondoren, hau ez da okerragoa izango.

Kontua da oso zaharra naizela eta buruak ez dit ematen gauza guztiak gogoratzeko. Oh, dear! Zer jartzen du kartel horretan?

Klinika batean nengoen!" "Centro geriátrico"

-Baina, baina, zu nor zara?

Ezuste bat bata bestearen atzetik. Aiton bat sartu zait kamioian, pijama darama soinean. Josefina Arregui dio pijamako jakak.

- Esango didazu nor zaren? Zertan ari zara hemen?
- Ixo, ez egin zaratarik. Etxera joan nahi dut. Nik zu ezagutzen zaitut. Zu aspaldi iritsi zinen hona.
- Bai, hala uste dut. Jaio nintzenetik buelta asko eman ditu nire bizitzak.

1943an Britainia Handiko lantegi batean jaio nintzen. I was very young. Handik gerra batera, Normandiara joan nintzen. Naziak zelatatu nituen. A ze garaiak! Gaztea nintzen eta sasoi betea nengoen.

Indotxinan ez dakit egon nintzen. Aiii, hau burua.

Badaukazu memoriaren pilularik?

-Bai, baina ez dakit non.

-Beno, berdin dio, orain konturatu naiz non ikusi dudan jakako eskudoa. Indotxinatik Gasteizera joan nintzen eta han esne mamitan pasa nituen urte batzuk. Hango aeroklubeko lagunekin txangoak egiten nituen. Horkoa da eskudoa.

Egun batean gizon bat agertu zen aeroklubeko hangarrera. Hegazkintxo baten bila zebilen, eta nitaz maitemindu zen eta ni Carlosez.

Berarekin txangoak egiten jarraitu nuen, baina kasu honetan Nafarroa osoan zehar argazkiak aterezaz. Zein polita den! Behin Pirinioetako mendirik garaienak zeharkatu nituen!

- Eta nola demontre bukatu duzu horko biltegian?
- Ba... ez dut gogoratzen.
- Zu ni baino okerrago zaude. A ze pareta, karakola eta barea...
- Auskalo, segur aski gaixo nengoelako zen, begira nola nagoen.
- Asko falta da?
- Zer ba? Aspertu zara nire kontaktarekin?
- Ez, baina etxera iritsi nahi dut. Lehen entzun diet zu kamioira igo zaituztenei Gasteizera joango zirela aereo- ez-dakit-zer batera.
- Bai, hori pentsatu dut, aerodromora goazela.

Bat-batean kamioia gelditu egin zen, atea zabaldu eta lehengo gizonak gehi beste batzuk azaldu ziren.

- Y, ¿este señor que hace aquí?
- Tranquilos, ¿esto es Vitoria? Sólo quería venir a casa.
- Si, estamos en Vitoria, ya le ayudamos a bajarse y le llevamos a casa.

- Miguel, acerca la grúa que en unos meses como nuevo el avión.
- Hau poza! Berriro hegan egingo dut! Konpontzera ekarri naute. Zu lasai, aitona, ni konponduko nauten bezala zuri ere lagunduko dizute. Zorte on!

Egileak: Leyre Barbarin
Maite Torres
Sergio Garcia de Eulate